

## **UDALEKU IREKIAK 2019**

### **INFORMAZIO OROKORRA ETA ARAUDIA**

1. Norentzat: 4 eta 10 urte bitarteko umeentzat (2009-2015). Talde bitan: Txikiak (2015 eta 2014) eta Handiak (2009-2013).
2. Izena emateko Ametx txartela **UME TXARTELA** bezala **aktibatuta** izatea **derrigorrezkoa** da.
3. **4 aste** eskaintzen dira **aukeran**:  
Asteak (aukeran):
  1. astea: ekainaren 24tik 28ra
  2. astea: uztailaren 1etik 5era
  3. astea: uztailaren 8etik 12ra
  4. astea: uztailaren 15etik 19ra (16an jai)  
Ordutegia (aukeran):
  - A.- 9:00 - 13:00
  - B.- 9:00 - 15:00 (jantoki zerbitzua barne)

\* **Ordutegi hauek aldaketak izan ditzakete programaren barruan egiten diren ekintza desberdinen arabera (Irteerak, etab.)**
4. Onartuen zerrendetan lehentasuna izango dute Amorebieta-Etxanon erroldatuek. Horrela, eskari-kopurua eskainitako plaza-kopurua baino handiagoa bada, kanpoko biztanleak azkenak izango dira zerrendetan.
5. **Plaza mugatuak**. Matrikulazio gehiegi izan ezkeru zozketaz esleituko dira plazak. Plazen onarpena **SMS bidez** jakinaraziko da **maiatzaren 8an**.
6. **NEBA-ARREBAK**: Zozketa egiterakoan zenbaki bakar batekin parte hartuko dute izena ematerakoan batera egin badute
7. **Izena emateko epea: apirilaren 1etik 30era** Gazte Informazio Bulegoan.  
Ordutegia: 10:00 - 13:00 eta 17:00 - 20:00.
8. Ordainketa kreditu txartelarekin **egingo da ezartzen den epean, zozketa egin ondoren plaza esleituta dagoelarik**.
9. Prezioak eta deskontuak.  
Astebete A taldean: 35 €  
Astebete B taldean: 75 €  
Deskontuak: Indarrean dagoen Prezio ordenantzaren arabera.

10. **Itzulketak.** Izena emateko epea bukatuta ez da dirurik itzuliko hurrengo egoeretako bat ematen ez bada (beti ere idatziz eskatuta eta dagokion dokumentuak aurkeztuta): **a)** gaixotasun edo istripu larria (medikuaren ziurtagiria) edo **b)** udalekuetara etortzea eragozten duten ustekabeak edo beharrizan larriak, justifikatuta. Behin udalekuak hasita diru itzulketara arazo larriren bat suertatzen bada baino ez da bueltatuko, eta disfrutatu ez diren egunen kopuru proportzionala soilik.
- 11) Udalekuak Larrea ikastetxeko egoitzetan eta udal kirol eta kultura egoitzetan garatuko dira onartzen den programaren arabera.
- 12) Informazio batzarra. Ekainean izango da eta bertan udalekuetako programaren zehaztasun guztiak emango dira: ekintzak, irteerak, ekarri eta jakin beharrekoak, eta abar.
- 13) Deialdi honetan ematen diren informazioa eta datu pertsonalak Izaera Pertsonaleko Datuak Babestari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen babespean egongo dira.
- 14) Beharrizan bereziak dituzten umeak. **5 plaza daude**, horrek baino gehiago izango balira zozketa batez esleituko dira plazok. Minusbaliotasun psikikoa duten umei udalekuetan parte hartzeko 2 urteko marjina emango zaie.